



Gipuzkoako Desgaitasun Fisikoa duten
Pertsonen Federazio Koordinatzailea
Federación Coordinadora de Personas
con Discapacidad Física de Gipuzkoa

PARTE-HARTZE PROZESUA

BIZIMODU INDEPENDENTE EREDUA: NON, NOLA ETA NOREKIN BIZI AUKERATZEKO EREDUA



AURKIBIDEA

01

SARRERA

02

PARTE
HARTZEKO
PROZESUAREN
HELBURUAK

03

METODOLOGIA

04

GALDETEGIA

05

GALDEKETAREN
EMAITZAK: ZEN-
BAKIAK ETA BA-
LORAZIOAK

06

PARTE-HARTZE
TAILERRAK

07

PARTE-HARTZE
PROZESUAREN
ONDORIOAK

01

SARRERA



elkartu "HITZA(H)ARTUZ" (Parte-hartzea sustatuz) izeneko lan-lerroa garatzen du, eta, haren bidez, desgaitasun fisikoa duten pertsonen eskubideak sustatzeko eta defendatzeko parte-hartze prozesuak bultzatzen ditu.

Lan-lerro honen bidez, eta modu parte-hartzailean, desgaitasuna duten pertsonen eskubideetan eta bizi-kalitatean eragiten duten hainbat eremu edo gai jorratzen dira. Horrela, azkeneko urteetan parte-hartze prozesuak egin dira, besteak beste, desgaitasuna duten pertsonen pandemian bizitako egoera aztertzeke, etxebizitza-eskubideari buruzkoa, mugikortasun urriko pertsonen hondartzetan dituzten laguntza-sistemak edota bainu-zerbitzu egokitua ezagutzeko.


Oraingo honetan, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioak jasotzen duen bizi-proiektu independentea garatzeko eskubidea aztertu da; oinarrizko eskubide bat desgaitasuna duten pertsonen erabateko inklusioa bermatzeko, eta, gainontzeko pertsonen baldintza berberetan, desgaitasuna duten pertsonen parte-hartze soziala bermatzeko.

Hala, 2024 urtean, Bizimodu Independenteterako Programa onartu zen Gipuzkoan. Gipuzkoako Foru Aldundiak eskaintzen duen baliabidearen helburua da desgaitasuna duten pertsonen bere ingurune naturalean bizitzeko eskubidea bermatzea, horretarako laguntza pertsonala eskainiz eta instituzionalizazioa saihestuz.

Programak 20 urte bete dituenean, **elkartuk**, UPV/EHUrekin elkarlanean, programa aztertu du parte-hartzaileengan izan duen eragina ezagutzeko. Hiru ikuspuntu hauek aztertu dira: soziala, emozionala/ahalduntzea eta ekonomikoa. Azterketa amaituta, beharrezkoa ikusi da desgaitasuna duten pertsonen artean zabaltzea; batetik, eskubidea bermatzera bideratzen diren politikan dauden gabeziak antzemateko, eta, bestetik, etorkizuneko politika eta neurri publikoak hobetuko dituzten proposamenak lantzeko.

Era berean, egoki ikusi da parte-hartze prozesuan, Bizimodu Independenteterako Programan parte hartzen duten pertsonen gain, bestelako pertsonak eta eragileak inplikatzeko: etorkizunean bizi-proiektu independentea gauzatzeko asmoa dutenak, instituzionalizatutako ereduak daudenak, familiak, eta abar).

Hortaz, ikerketa-ekintza-parte-hartze proiektu honen bidez, desgaitasuna duten pertsonen aho-tsa eman nahi izan zaie gabezien diagnostikoan eta ekintza-proposamenen diseinuan euren iritziak kontuan hartzeko, eta, horrela, arlo honetan eskumenak dituzten Gipuzkoako erakundeak interpelatu dira bizi-proiektu independentea bultzatzeko beharrezko neurriak har ditzaten.




02

PARTE HARTZEKO PROZESUAREN **HELBURUAK**




Parte hartzeko prozesuak **helburu hauek** lortu nahi izan ditu:



03

METODOLOGIA

Erabilitako metodologia honako **printzipio haue**tan
oinarritu da:



PARTE-HARTZEA.

Proiektuan aurreikusitako ekintzak desgaitasun fisikoa duten pertsonak eta inplikaturako eragile instituzional eta pribatuek parte hartuz egin dira.

GENERO-BERDINTASUNA.

Proiektuaosatzen duten jarduera, analisi eta ebaluazio guztietan generoaren aldagia sartzea.

KOMUNITATEAREN IKUSPEGIA.

Gizartea Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioaren inguruan kontzientziatzea, desgaitasuna duten pertsonen erabateko eta benetako gizarteratzea lortzeko tresna gisa.

DIZIPLINARTEKOTASUNA.

Proiektua talde profesional baten bidez garatu da. Elkartegintzan jasotako ezagutza eta egindako ibilbide luzea talde horren esku jarri da, eta, hala, aurreikusitako helburuak lortzen lagundu du, hainbat ikuspegitatik (soziala, juridikoa, teknikoa, etab.).

LANKIDETZA ETA ELKARLANA.

Sektore publikoaren eta hirugarren sektore sozialeko kasu honetan, Gipuzkoako desgaitasun fisikoa duten pertsonak ordezkatzeko dituerakundeen arteko elkarlana bultzatzea, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legean adierazitako moduan.

GIZA ESKUBIDEEN IKUSPEGIA.

Gipuzkoa Nazio Batuen Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioaren printzipioak eta orientabideak ezartzearen aldeko apustu irmoa egiten duen lurralde bihurtzea izan da proiektuaren helburu nagusia.

BOLUNTARIOTZA SUSTATZEA.

elkartuko boluntarioek proiektuaosatzen duten ekintzen gauzatzean parte hartzea.



Printzipio horietan oinarrituta, parte hartzeko prozesua lau **fasetan** egin da:

1.

Prozesuaren diseinua: proiektuaren oinarri teorikoak eta metodologikoak finkatu dira, ondoren garatzeko, eta, era berean, beharrezko dokumentazioa prestatu da, bereziki, informazioa biltzeko galdetegia.

2.

Online galdetegiaren hedapena: desgaitasuna duten pertsonen eta hainbat eragileri, hainbat bitartekoren bidez (webgunea, posta elektronikoa, sare sozialak, *Elkarte* aldizkaria, etab.), informazioa biltzeko tresna telematikoa helarazi zaie.

3.

Parte hartzeko tailerrak: aldez aurretik interesdunekin bilera bat antolatuz, Bizimodu Independenteterako Programaren ebaluazioaren emaitzak partekatzeko, eta, ondoren, eragile ezberdinekin tailerrak antolatuz.

4.

Amaierako txostena egitea eta ondorioak hedatzea: parte hartzeko prozesuan landutako alderdiak dokumentu batean jaso dira eta gizarte osoari ezagutarazteko komunikazio-kanpaina bat egin da. Azken horri dagokionez, arreta berezia jarri da sare sozialen bidez zabaltzeko.

PARTE HARTZEKO
PROZESUAREN
FASEAK



04

GALDETEGIA

Proiektuaren funtsezko alderdietako bat parte hartu duten pertsonen informazioa eta proposamenak jasotzeko galdetegia diseinatzea izan da. Horretarako, galdera-sortaren lehen zirriborroa egin zen, Bizimodu Independententerako Programarekin lotura duten alderdi nagusiak bilduz; eta, ondoren, desgaitasuna duten eta proiektuan parte hartu nahi izan duten pertsonekin, eta gainontzeko eragileekin, egindako partaidetza-tailerrean kontrastatuz eta definituz.

Jarraian, galdetegia eta kontuan hartu diren adierazleak agertzen dira:



Ezagutzen duzu Bizimodu Independenterako Programa?

1. Bai, momenturen batean Programako erabiltzailea izan naiz
 2. Bai, baina ez dut inoiz erabili
 3. Ez dut ezagutzen
-

01

Bai, momenturen batean Programako erabiltzailea izan naiz

- 1.a) Zure ustez, Bizimodu Independenterako Programa lagungarria da desgaitasuna duten pertsonen ahalduntzea, autonomia edota gizarteratzea sustatzeko? Bai / Ez
- 1.b) Nolakoa izan da Programan izan duzun parte-hartzea? Oso ona / Ona / Hala moduzkoa / Txarra / Oso txarra
- 1.c) Egokiak dira Programan parte-hartu ahal izateko bete behar diren baldintzak? Bai / Ez (Erantzuna ezezkoa bada, arrazoitu dezakezu)
- 1.d) Zein da bizi-proiektu independentea gauzatzeko daukazu zailtasunik handiena?
- 1.e) Bizi-proiektu independentea gauzatu ahal izateko (etxe-ko-laguntza zerbitzua bilatzeko, kontratuak edo nominak bideratzeko, eta abar) lagungarria zaizu Bizimodu Independenterako Programa Bulegoa aktibatzea?

02

Bai, baina ez dut inoiz erabili

- 2.a) Nola ezagutu duzu Bizimodu Independenteterako Programa? elkarturen bidez / Udalerrietako Gizarte Zerbitzuen bidez / Gipuzkoako Foru Aldundiaren bidez / Ezagun baten bidez / Bestela
- 2.b) Zergatik ez duzu Programan parte hartu?
- 2.c) Etorkizunean, parte hartuko duzula uste duzu? Bai, epe laburrean / Bai, epe ertainean / Bai, epe luzean / Ez
- 2.d) Etorkizunean parte hartzekoa bazara, zerk kezkatzen zaitu gehien?


03

Ez dut ezagutzen

- 3.a) Bizimodu Independenteterako Programaren informazioa jaso nahiko zenuke? Bai / Ez
- 3.b) Etorkizunean, nahiko zenuke bizi-proiektu independentea gauzatu familiaren, edo, hala badagokio, egoitza-zentro baten laguntzaren mende egon gabe?

05

GALDEKETAREN EMAITZAK: ZENBAKIAK ETA BALORAZIOAK



Guztira, desgaitasun fisikoa duten 41 pertsonen erantzun dute galdeketa, 24 emakumek eta 17 gizonak.

GALDEKETA ERANTZUN DUTEN PERTSONAK		%
Emakumeak	24	58,5
Gizonak	17	41,5
Guztira	41	

Bizimodu Independenterako Programaren ezagutza maila aztertuta, deigarria da desgaitasuna duten eta galdeketa erantzun duten pertsonen % 46,4ak ez duela ezagutzen, nahiz eta dauden egoeran Programak eskaintzen dituen laguntzak jasotzeko baldintzak bete.

BIZIMODU INDEPENDENTERAKO PROGRAMAREN EZAGUTZA MAILA		%
Bai, momenturen batean programako erabiltzailea izan naiz	11	26,8
Bai, baina ez dut inoiz erabili	11	26,8
Ez dut ezaguten	19	46,4
Guztira	41	

Programa ezagutu eta momenturen baten erabiltzaile izan direnen artean, azpimarragarria da guztiek pentsatzen dutela desgaitasuna duten pertsonen ahalduntzea, autonomia eta gizarteratzea sustatzen duela. Beraz, garbi geratzen da ereduak erabiltzaileengan eragin positiboa duela.

PROGRAMAK AHALDUNTZEA, AUTONOMIA ETA GIZARTERATZEA SUSTATZEN DITU		%
Bai	11	100
Ez	0	0
Guztira	11	

Programan parte hartu duten erabiltzaileen asebetetze maila handia da; % 90,9ak oso ona edo ona dela erantzun du (ikuspegi negatiborik ez da jaso).

PARTE-HARTZAILEEN BALORAZIOA		%
Oso ona	4	36,4
Ona	6	54,5
Hala moduzkoa	1	9,1
Txarra	0	0
Oso txarra	0	0
Guztira	11	

Programan parte hartu duten pertsonen artean, ia gehienek uste dute baldintzak egokiak direla. Datu esanguratsua da, baldintza eta ondorioen ezagutza maila altua baita.

PROGRAMAN PARTE HARTU AHAL IZATEKO BALDINTZA EGOKIAK		%
Bai	10	90,9
Ez	1	9,1
Guztira	11	

Bizitza independentea gauzatzeko zailtasunen inguruan galdetuta, desgaitasuna duten eta Programan parte hartu duten pertsonen jarraian zerrendatzen direnak aipatu dituzte:

- Beharrezkoa den gaitasun ekonomikoa.
- Laguntza pertsonala eskaintzen duten profesionalak ezagutzea eta kontratatzea.
- Eguneroko jardunetarako eta erabakiak hartzeko dependentzia izatea.
- Inguru hurbilak ematen didan babesa utzi behar izatea.
- Etxebizitza norberaren baldintza eta beharretara egokitzeko egin behar den inbertsioa.
- Gastu errealak Programak ematen duen laguntza gainditzeko duela, eta, berarekin dakarren tramitazioa.
- Norberak dituen beharrak aseko dituen etxerako laguntzailea bilatzea.
- Pertsona gisa ahalik eta autonomia gehien lortzeko, administrazio publikoak etxerako laguntzailea kontratatzeko beharrezkoa den laguntza ematea.
- Oztopo arkitektonikoak.
- Dependentzia fisikoa eta laguntzak eragiten duen zama ekonomikoa.
- Programan parte hartzen duten pertsonen beharrak asetzeko administrazioaren jarrera, beti ez baita egoerak eskatzen duen prestu egoten.

Galdeketa, era berean, Bizimodu Independenteterako Bulegoaren gaia txertatu da, desgaitasuna duten pertsonen artean bizi-proiektu independente ereduak diseinatzeko eta garatzeko baliabide gisa. Deigarria da galdeketa erantzun duten pertsona guztiek, salbuespen bakarrarekin, haren beharra nabarmendu dutela (kontra-ko erantzunik ez da jaso, hamaikagarrenak ez baitu erantzuna argi).

BIZIMODU INDEPENDENTERAKO BULEGOA		%
Bai	10	90,9
Ez	0	0
ED/EE	1	9,1
Guztira	11	

Beste multzo batean, **Programa ezagutu arren, orain arte parte hartu ez duten pertsona-taldea dago.** hamaika pertsonak osatzen dute multzoa, eta, erantzun hauek jaso dira Programa nola ezagutu zuten galdetzean:

PROGRAMA EZAGUTZEKO MODUA		%
Pertsona ezaguna	2	18,2
Elkartu	8	72,7
Gipuzkoako Foru Aldundia	1	9,1
Guztira	11	

Bizimodu Independenteterako Programan parte hartu ez duten pertsonen erantzunak aztertuta, % 50ak elkartu bidez ezagutu du; % 20ak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren bidez; % 10, ezagun baten bidez; beste % 10ak, udalerrietako gizarte Zerbitzuetan jaso du Programaren berri; eta, geratzen den beste %ko 10ak, bestela.

Programa ezagutu arren, parte hartu ez izanaren arrazoiengatik inguruan galdetuta, hauek dira jasotako erantzunak:

- Ekonomia- eta lan-egonkortasun ezagatik.
- Ezagutu ondoren interes faltagatik.
- Programan parte hartu beharrik gabe bizi-proiektu independentea eramateagatik.
- Gizarte Zerbitzuak haren berri ez emateagatik.
- Familiaren laguntza jasotzeagatik.
- Baldintzak betetzen ditudan ez jakiteagatik.
- Etxebizitzarik jabetzan ez izateagatik.
- Momentuz beharrik ez izateagatik, nahiz eta, ziurrenik, etorkizunean behar.
- Bizi-proiektu independentea gauzatzeagatik; momentuz, bakarrik eta unean-uneko familiaren laguntzarekin.
- Programan parte hartzeko beharra ez sentitzeagatik.

Laguntza beharrak asetzeko, etorkizunean Programan parte hartzeko beharra izango duten galdetuta, erantzunek erakutsi dute % 63,7ak baliabidea erabiltzea pentsatu duela, nahiz eta inork ez duen aukera epe laburrean aurreikusten. Batez ere, epe ertaineko alternatiba modura ikusten da.

ETORKIZUNEAN PARTE HARTZEA		%
Bai, epe laburrean	0	0
Bai, epe ertainean	5	45,4
Bai, epe luzean	2	18,2
Ez	3	27,3
ED/EE	1	9,1
Guztira	11	

Eta, etorkizunean Programa erabiltzea aztertzen ari diren pertsonen artean, hauek dira kezka iturri nagusiak:

- Gaitasun ekonomikoa.
- Egoera fisikoa.
- Laguntza pertsonalarekin zerikusia duen guztia.
- Eredura egokitzea.
- Egin beharreko administrazio-izapideak.
- Ekonomia arloa eta laguntza pertsonaren kudeaketa.
- Udalerriko irisgarritasun mugak.
- Nire mendekotasunaren areagotzea eta desgaitasunaren bilakaera.

Hirugarren multzoan, **Bizimodu Independentearako Programa ezagutzen ez duten pertsonak** daude. Hasteko, Programa ezagutzeko interesik ba ote duten galdetu zaie. 19 lagunek erantzuten dute, eta, hemezortzik, xehetasun gehiago ezagutzeko interesa agertu dute (19.enak, ez daki/ez du erantzun).

PROGRAMAREN INGURUKO INFORMAZIOA EZAGUTZEKO INTERESA		%
Bai	18	94,7
Ez	0	0
EE/ED	1	5,3
Guztira	19	

Eta, haratago joanez, etorkizunean bizi-proiektu independentea gauzatzeko nahiaz galdetu da, familiaren edo, hala badagokio, egoitza-zentro baten laguntzaren mende egon beharrik gabe. % 80,0k baietz erantzun du; aldiz, bi pertsonak ezetz esan dute, eta, beste bik, zalantzak adierazi dituzte.

BIZI-PROIEKTU INDEPENDENTEA GARATZEKO INTERESA		%
Bai	15	80
Ez	2	10,5
Zalantzak	2	10,5
EE/ED	0	0
Guztira	19	

06

PARTE-HARTZE TAILERRAK

Proiektuak, bere faserik esanguratsuenean, parte-hartze tailerrak antolatu ditu. Bertan, askotariko eragileek parte hartu dute eta Bizimodu Independententerako Programari hainbat ekarpen egin dizkiote, eta baita zenbait balorazio ere. Zehatz mehatz, Tailer hauek egin dira.

A/ Testuingurua kokatzeko tailerra.

B/ Bizimodu Independententerako Programako erabiltzaileekin tailerra.

C/ Etorkizunean Programan parte har dezaketen pertsonekin tailerra.

D/ Etorkizunean Programan parte har dezaketen pertsonen senitartekoekin tailerra.

E/ Instituzionalizatutako pertsonekin tailerra.

AI

TESTUINGURUA KOKATZEKO TAILERRA

Tailerra irailaren 25ean egin zen eta 24 pertsonak parte hartu zuten (14, aurrez aurre, eta, beste 10, modu telematikoan) eta baliagarria izan zen Bizimodu Independenteterako Programa testuinguruan kokatzeko.

Horretarako, Gipuzkoako Bizimodu Independenteterako Programa aztertzeke elkartuk eta UPV/EHUK elkarrekin garatutako ikerketa aurkeztu eta ebaluaziotik ondorioztatzen diren gai nagusiak partekatu ziren. Ebaluazioak honako eremu hauek jorratzen ditu:



Alderdi orokorrak: parte-hartzaileen profilaren ezaugarritzea, baita Bizimodu Independenteterako Programaren garapenean duten sarbidearekin, parte-hartzearekin eta gorabeherekin lotutako gaiak ere.



Giza-alderdia: bizi-proiektu eredu independenteak ematen duen inklusio-mailaren azterketa.



Alderdi psikologikoa: bizi-proiektu eredu independenteak ongizate emozionalean eta desgaitasuna duten pertsonen ahalduntzean nola eragiten duen egiaztatzea.



Alderdi ekonomikoa: bizi-proiektu eredu independentearen errentagarritasun ekonomikoa aztertzea, baliabide publikoen eraginkortasuna eta efizientzia bermatzeko eredu bezala.

Era berean, Bizimodu Independenterako Programa sendotzen, bultzatzen eta garatzen esku hartu behar duten eragileei zuzentzen zaizkien proposamenak eta gomendioak jaso ziren Dekalogo batean:

1. Bizimodu Independenterako Programa Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Zerbitzu- eta Prestazio-zorroan txertatzea.
2. Laguntza pertsonaleko zerbitzu-kostu osoaren estaldura bermatzea.
3. Desgaitasuna duten pertsonen artean, diru-sarrera maila baxua dutenei programarako sarbidea sustatzea.
4. Desgaitasuna duten pertsona gazteen parte-hartzea sustatzea.
5. Landa-eremuan bizi eta desgaitasuna duten pertsonen parte-hartzea sustatzea.
6. Programa desinstituzionalizazio-prozesuak diseinatzeko eta garatzeko tresna gisa sustatzea.
7. Etxebizitzen alokairua sustatzeko politika publikoen instrumentalizazioa bultzatzea, batez ere alokairu sozialekoak.
8. Bizimodu Independenterako Bulegoa sortzea, laguntza pertsonala kontratazeko transferentzia ekonomikoaren laguntza-baliabidearen osagarri.
9. Desgaitasuna duten pertsonen artean Programa ezagutarazteko estrategiaren diseinua sustatzea.
10. Bizi-proiektu eredu independentearen ezagutza sortzeko eta gizarteratzeko baliabideak jartzea.



BIZIMODU INDEPENDENTERAKO PROGRAMAKO ERABILTZAILEEKIN TAILERRA

Tailerra urriaren 3an egin zen eta egun, Bizimodu Independenteterako Programan parte hartzen duten 5 pertsonekin egin zen (4kin, aurrez aurre, eta, bestearekin, modu telematikoa).

Jarraian, hizketa-gai nagusiak eta balorazioak zerrendatzen dira:



Bizimodu Independenteterako Programaren alderdi positiboak:



- "Batzuetan, ez gaude erantzukizunak hartzera ohituta eta Programak erantzukizunak hartzen laguntzen du. Zure bizitza-eredua aukeratu".
- "Nire etxean bizitzeko aukera izatea".
- "Norekin eta nola bizi nahi duzun aukeratzea".
- "Egunean zehar zer eta nola egin erabakitzea. Garrantzitsuena zure erabakiak hartzea da".
- "Zure burua zaintzea. Egoitza batean bizitzen egon ondoren, zure planak egitea eta zer egin nahi duzun aukeratzea izugarria da".



Parte-hartzeko baldintzak



- "Apenas dira ezagunak, agian, interesik ez dagoelako da".
- "Komunikazio kanpaina batekin gehiago ezagutuko litzateke".
- "Helburua zehaztu behar da estrategia bat diseinatzeko".
- "Gizarte langileek ez dute ezagutzen, eta, horrela zaila da Programa ezagutaraztea".
- "Ez da komeni ezagutzea".
- "Familiek zeresana daukate sarbidean".
- "Gizarte Zerbitzuetako langileek egoitzetara bideratzen gaituzte".
- "Kontzientzia eta autonomia garatu ahal izateko aurre-lanketa egitea eskatzen du".
- "Gipuzkoako Foru Aldundiak etxebizitza gehiago eskatu beharko litzuke aukerak biderkatzeko".



Gipuzkoako Foru Aldundiarekin harremana



- "Profesionaltasun maila hobetu dute".
- "Profesionalen eta erabiltzaileen arteko harremana ona da".



Baldintza ekonomikoak



- "Programa LPPE laguntzaren osagarri da".
- "Gizarte Segurantzak gastuak igo dira eta jasotzen dutan diru-laguntza ez da nahikoa gastu guztiak estaltzeko".
- "Laguntza pertsonala ematen zidan profesionalak baja hartu zuen eta ordezkia kontratatzean, bi gizarte segurantzak ordaindu behar izan nituen aldi berean".



Laguntza pertsonalerako zerbitzua



- "Zailtasunak dauzkagu laguntza pertsonak kontratatzeke eta, zenbaitetan, enpresetara jo behar izaten dugu, baina, langileen lan-baldintzak ez dira onak eta ez naiz ondo sentitzen".
- "Formazio zentroetara joaten naiz, baina, normalean, ez dute nahi izaten gure profileko jendearekin lanean aritzea".
- "Lan mota hau sustatu beharko litzateke, jendeak ez du ezagutzen".
- "Praktiketan dagoen gazte bat hartuko nuke, ikas dezan. / Nik ez, oso zaila da oinarri-oinarritik hastea".



Bizimodu Independenteterako Bulegoa



- "Bulego batek kostua garestitu lezake".
- "Beharrezkoa dela uste dugu, eta arrakastatsua litzatekeela".
- "Beharrezkoa da, edo bestela, langileak kontratatu behar dituzten pertsonen formazioa ematea kontratuak, bajak eta abar bideratzeko".

Laburpen gisa, nabarmendu daiteke Bizimodu Independenteterako Programan parte hartzen duten pertsonen balorazio positiboa egiten dutela. Norberak bere erabakiak hartzeko aukera duen momentutik, bizi-kalitatea hobetu dutela uste dute.

Hala eta guztiz ere, jasotzen duten diru-laguntza gastu guztiak estaltzeko ez dela iristen eta sarbiderako baldintzak oso zorrotzak direla jakinarazi dute. Modu berean, laguntza pertsonala kudeatzeko zailtasunak daudela: batetik, hezkuntza-zentroetan formazio mota hau ez delako sustatzen; eta, bestetik, enpresetako lan-baldintzak txarrak direlako.

Halaber, Bizimodu Independenteterako Bulegoa lagungarria izango dela uste dute desgaitasuna duten pertsonen bizi-proiektu eredua independentea diseinatzeko eta gauzatzeko.



ETORKIZUNEAN PROGRAMAN PARTE HAR DEZAKETEN PERTSONEKIN TAILERRA

Tailerra urriaren 8an egin zen eta egun, familia-laguntza jasotzen duten, baina etorkizunean Bizimodu Independenteterako Programan parte hartzea aztertu duten 5 pertsonekin egin zen.

Bileran, oro har, bizi-proiektu eredua independenteko gaiak landu ziren, eta, bereziki, Bizimodu Independenteterako Programari dagozkionak, eta honako gai hauek landu ziren:



Bizimodu Independenteterako Programak iradokitzen dituen gaiak



- "Autonomia, independentzia, gurasoen magaletik ateratzea, ahalduntzea".
- "Ahalik eta modu autonomoenean bizitzeko gaitasuna".
- "Gainontzekoak bezala bizitzea".
- "Nola bizi erabakitzea".
- "Ondo legoke familiarekin bizi diren gazteak sartzeko aukera izatea eta modu horretan bizi-proiektu eredua independenteterako trantsizioa egi-
tea".

- "Programa gai tabu bat da gurasoentzat, ez zaie etxean beste pertsona bat sartzea gustatzen".



Parte-hartzeko baldintzak



- "Enpresa-buru izan beharra daukat, eta, errespetua sortzeaz gain, gogai-karria zait. Zergatik behartzen naute enpresa-buru izatera? Egoera horrek dakarren guztiak kezkatzen nau. Diru asko irabazi, edo, bikote bat izango banu, egoera bestelakoa litzateke".
- "Hori baino, niretzat zailagoa da laguntzarako pertsonak topatzea".
- "Nik gizarte-langilearekin hitz egingo nuke".
- "Nik Infojobs-en iragarkia jarriko nuke".
- "Niretzako, okerreina da paperik gabeko pertsonak kanpoan geratzea da, errolda-agiririk ez daukatelako. Sektorea ezegonkorra da eta inork ez du bertan lanik egin nahi; erroldaturik ez dauden pertsona hauei trabak jartzen bazaizkie, oso zaila da laguntzaileak kontratatzea".
- "Bizi-proiektu eredu independentea gauzatu ahal izateko laguntza gehigarria izatea ezin hobe litzateke, eta, bidezkoagoa".
- "Gizarte laguntzaileek ondorioztatzen dute amak zaintzen zaituela".



Bizimodu Independenteterako Programa ezagutarazteko ekintzak



- "Formazio-saioak".
- "Ezagutarazteko kanpainak".
- "Irratia, TB...".
- Foru Aldundiaren datu-basera eskutitza bidaltzea. Baina, informazioa zabaltzen baduzu, beharrezkoa da jarraipena egitea eta erantzuna ematea (orientazioa, diru-laguntzak, aholkularitza...).



Parte hartuko zenuke Bizimodu Independenteterako Programan?



- "Bai, eta gertu ikusten dut".
- "Beldurra daukat, ziurrenik, etxean jaso dudana heziketarik. Familiak eta heziketak gure ahalduztzean eragiten dute".
- "Etorkizuneko aukera bezala ikusten dut".

- "Epe luzean ikusten dut, batez ere, etxebizitzaren kontuagatik".
- "Eskatzen dituzten baldintzak oso konplexuak dira gure kolektiboarentzat".

→ **Bizimodu Independenterako Bulegoa**



- "Beharrezkoa da. Ez dakit lidergoa nork hartu behar duen, elkartuk edo Foru Aldundiak. Programari ikusgarritasuna emango lioke".
- "Aholkularitza eta laguntza ematea lirateke Bulegoaren betekizunak".
- "Laguntza produktuen inguruko aholkularitza: domotika, egokitzapena, eta abar".

Laburtuz, egun familien laguntza jasotzen duten pertsonak, orokorrean, ez dute Bizimodu Independenterako Programa ezagutzen, baina, bizi-proiektu eredu independenterako nahia eta borondatea azaldu dute, eta, Programa, helburu hori lortzeko erreminta gisa ikusten dute. Hala ere, traba garrantzitsuak antzeman dituzte, besteak beste, familien laguntza falta, eskakizunen baldintza eta prozedura konplexuak, edota, etxebizitza edo nahikoa baliabide ekonomiko izateko zailtasunak. Hortaz, bizi-proiektu eredu independentea diseinatu eta gauzatu ahal izateko formazioa, aholkularitza eta laguntza eskatzen dute.





ETORKIZUNEAN PROGRAMAN PARTE HAR DEZAKETEN PERTSONEN SENITARTEKOEKIN TAILERRA

Tailerra urriaren 10ean egin zen desgaitasun fisikoa duten eta dependentzia egoeran dauden pertsonen 3 senitartekorekin. Egun, pertsona hauek eguneroko bizitzako oinarriko jarduerak egiteko laguntza ematen dute.

Jarraian, hizpide izan ziren gai esanguratsuenak eta azaldutako iritziak jasotzen dira:



Bizimodu Independenterako Programaren ezagutza



- "Entzuna daukat, baina, ez dut ezagutzen".
- "Nik ezagutzen dut, baina, gastua osotasunean estaltzen du? Ordu asko dira eta ez zait iruditzen instituzioek % 100ean estaliko dutenik".
- "Oso haserre nago dependentziara bideratzen diren laguntzekin, ez da ezer egiten. Gainera, zergatik bizi behar dute bakarrik? Edo, bestela, erresidencia batean? Ezin dute aukeratu, eta ez zait justua iruditzen".



Seme-alabek bizi-proiektu eredu independentea garatzeko duten gaitasunari buruzko pertzepzioa



- "Alabak ikusten dut bere bizitza antolatze eta erabakiak hartzeko gaitasunarekin".
- "Baita nik ere. Alaba bakarrik bizi da, eta, orain dela gutxira arte, laguntza handia eman behar izaten genion. Orain, arrazoi ezberdinak tarteko, bere kabuz moldatu beharra dauka, eta, aldaketa positiboa izan da".
- "Nik ezetz esango nuke. Etxean zeregin asko dago eta orain arte oso eroso egon da".

→ **Bizi-proiektu eredu independente baten aurrean izan daitezkeen erresistentziak**



- "Gizarte Zerbitzuetan ez dituzte gauzak azaltzen; asko jota, LPPE batetara bideratzen zaituzte eta ez da nahikoa. Alternatibarik egokiena erresidentzia bat zela esan zidaten, baina, nire alabak aukera hori ez du planteatu ete egiten".
- "Pena ematen dit erresidentzia batera joango dela imajinatzea, hori izatea bere aukera bakarra".
- "Nire alabak zailtasunak dauzka gauzak egiteko, aukerarik egokiena tutoretzapeko pisua dela uste dut. Laguntzaileek zenbat lana egiten duten entzuteaz nazka-nazka eginda nago; amak gara lan hori egiten dugunak, eta, ikusezinak garela dirudi. Ez daukagu bizitza sozialik, semea eta bere beharrak, horixe da gure patua".

→ **Bizi-proiektu eredu independenterako zerbitzuak**



- "Ez dute ezertarako balio ez direlako nahikoak".
- "Guk batzuk badauzkagu, baina ez da iristen behar guztiak asetzeko".

→ **Seme-alabak bizi-proiektu eredu independentea gauzatzeko erabakia- ren aurrean beldurrak**



- "Alderdi emozionalak kezkatzen nau. Alaba lagunekin joan da oporretara, eta, sekulakoa izan da, batez ere, niretzako".
- "Gehiegi babesteko joera daukagu. Nire beldurrik handiena eroriko bat izateko arriskua da".

→ **Bizimodu Independenterako Bulegoa**



- "Nekatuta nago enpresa-buru izateaz, gestoria baten esku utzi dut ardura hori. Hortaz, halako baliabide bat oso erabilgarria izango zatekeen".
- "Paperak egitea da okerreina: baja dela, Gizarte Segurantzak dela...".
- "Gaur egun, burokrasia handia dago, eta, Bulegoak, laguntza eman dezake gure seme-alabak bizi-proiektu eredu independentea gauzatzeko erabakia hartzera".

Tailerretik ondorioztatzen da, orokorrean, familiek ez dutela Bizimodu Independenterako Programa ezagutzen, eta, gainera, administrazioarekin zenbait arazo izan dituzte-nez, errezeloa agertu dute. Dependentsia egoeran dauzkaten eta desgaitasuna duten seme-alaben harira, bizi-proiektu eredu independentea eramateko duten gaitasunaren aurrean, iritzi ezberdinak dauzkate, baina, orokorrean, eguneroko bizitza antolatzen laguntzen diete. Gehiegi babesten dituztela onartzen dute, eta bizitza seme-alaben behar-rak asetzera bideratzen dutela, baina, erresidentziak ez dituzte gogoko. Diru-laguntzekin, eta artatzen dituzten moduarekin frustratuta daude, eta tramite burokratikoekin nekatu-ta. Zentzu honetan, seme-alabek bizi-proiektu eredu independentea garatu ahal izateko aholkularitza eta informazioa behar dutela nabarmentzen dute, eta, orokorrean, baita be-har dituzten laguntzak kudeatzeko ere.





INSTITUZIONALIZATUTAKO PERTSONEKIN TAILERRA

Tailerra urriaren 25ean egin zen eta egun desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza instituzionalizatuan bizi diren 4 pertsonen parte hartu zuten.

Topaketak aukera eman zuen Bizitza Independenteterako Programari buruzko ezagutza- eta interes-maila aztertzeko, instituzionalizazioan oinarritutako baliabide baten erabiltzaileen ikuspegitik, eta, ondorioz, adierazitako ereduari kontrajarritako ikuspegi batekin.



Bizimodu Independenteterako Programaren ezagutza maila



- "Ezagutzen dut, Programan parte hartzen duten lagunak dauzkadalako. Nire kasuan, pisu bat ematen didaten arte, zaila ikusten dut".
- "Hitzaldi batean zerbait entzun nuen, baina ez dut ezagutzen".
- "Ezaguna zaigu, baina ideia askorik ez daukagu".



Bizi-proiektu eredu independenteak iradokitzen dituen gaiak



- "Intimitatea izatea, ez zaitzatela kontrolatu".
- "Nahi duzun pertsonekin bizitzea".
- "Programa bizi-proiektu eredu independentea garatzeko baliabidea da".
- "Behar ditudan laguntzekin bizitzea".



Instituzionalizazio egoeraren esperientzia



- "Etxean laguntza handia behar nuen, familiarekiko mendekotasun egoera handia zen eta urratsa eman nuen. Aita ez zegoen ondo, eta, egoitzara joatea askatzailea izan zen. Familiarekin harremana ona zen, baina, aldi berean, zaila".
- Ama gaixotu egin zen eta anaiak ezin zuen zaintza-ardura hartu. Aldaketa egitea kostatu zitzaidan, gogorra izan zen, baina hoberako izan zen".
- "Gatazka pertsonala nuen gurasoekin. Traba egiten niela sentitzen nuen, ez zidaten ezer egiten uzten. Era berean, nire beharrei erantzuteko ez

zirela beti egongo konturatu nintzen. Sartu nintzenean dena nahiko ondo joan zen, asko ateratzen nintzelako eta etxera joaten nintzelako, baina gurasoei ez zitzaien gustatu eta egoitzan gehiago egotera behartu ninduten. Egoitzako arduradunak gurasoen alde jarri ziren, nire erabakiak eta beharrak ez zituzten kontuan izan”.

- “Kanpoan ikasi nuen, eta, itzuli nintzenean, hirira joan nintzen bizitzera. Ikasten nengoenez, egoitza batean sartzea erabaki nuen. Familiaren babesa jaso nuen, harremana oso ona da”.



Gustatuko litzaizuke Bizimodu Independenteterako Programa ezagutzea Instituzionalizaziorako urratsa eman zenuenean?



- “Niri bai, beste aukera bat da”.
- Ba, ez dakit. Zer egin behar dut bakarrik? Paretekin hitz egin? Egoitzan medikua dago, jarduerak antolatzen dituzte... Edozertarako atera behar izango nuke, eta, zerbait pasaz gero, ospitalera. Hemen ongi nago, baina, elkarrekin bizitzera joateko moduko inor ezagutzen badut... auskalo”.
- “Niri bai. Ez nuke bitan pentsatuko, baina, arazoa ekonomikoa da, horregatik baztertu nuen aukera”.
- “Gustatuko litzaidake, baina, nire kasuan, gurasoek beti lehenetsi dute egoitza”.



Egoitza-zentroa behin betiko baliabidetzat hartzea



- “Bizipena bestelakoa da. Beste leku batean zahartu nahiko nuke, baina gurasoek ez nindukete utziko. Orduan, gurasoak ez daudenean, agian, senitartekoekin hitz egiteko aukera izan nezake eta laguntza batzuekin nire etxean bizi”.
- Ongi nago, baina, aurreko erantzunean esan dudan bezala, pertsona berezi bat agertuko balitz, ba, aldatzeko prest nengoke. Ez dut egoitzatik atera behar bizi-proiektu eredu independentea gauzatzeko”.
- “Ez dut baztertzen”.



Bizi-proiektu eredu independentea gauzatzeko oztopo nagusia



- "Dirua".
- "Ekonomikoa. Ez zait iristen gurpildun aulkirako, konponketetarako, eguneroko gastuetarako, bizitzeko..."



Laguntza pertsonalari buruzko pertzepzioa



- "Non bilatu behar dudan ez dakit, baina konfiantzazko pertsona bat nahi-ko nuke".
- "Askok barrea egiten didate nori eskatu badakidala esaten dietenean".
- "Niretzat hobe da laguntzailea. Nik aukeratzen dut gainera".



Instituzionalizazioan oinarritzen den eredu moldatzeko proposamenak



- "Eguna negoziatzen pasatzen dut, eta, amorrua ematen dit. Gainontzeko kideekin batera protesta egitea gustatuko litzaidake, bakarrik ez dut ezer lortuko".
- "Azalpen ugari eman behar ditut, eta edozer egiteko baimena eskatu".
- "Ez zait ongi iruditzen asteburuetan 10:30ak baino lehenago esnatzeko aukerarik ez izatea. Aurrekoan, lehenago altxa nintzen eta errieta egin zidaten euren antolaketa egin aurretik altxa nintzelako. Antolatzen diren arte ohean botata egon beharra daukat".

Tailerretik ondoriozta daiteke, oro har, instituzionalizatutako pertsonak ez dutela Bizimodu Independenteterako Programa ezagutzen; gainera, pertzepzio hori areagotu egiten da egoitza-baliabidera beste aukerak aztertu gabe joateko erabakia hartu bada.

Gainera, instituzionalizazioa epe luzearako baliabide gisa ulertzen da, bizi-proiektu eredu independenteterako aukera utopia moduko bat balitz bezala. Horrela pentsatzera bideratzen diren arrazoiak zerrendatzen hasita, bi hauek aipatu dira: oztopo ekonomikoak eta familia-inguru-nean sortzen diren erresistentziak.

Bukatzeko, instituzionalizazioaren baitan okerrean baloratzen dena erabaki propioak hartzeko jartzen dituzten trabak dira, baita desgaitasuna duten pertsonen erabakiak modu askean hartzeko aukera falta.

07

PARTE-HARTZE PROZESUAREN ONDORIOAK



Bizimodu Independenteterako Programari buruzko partaidetza-prozesuari esker, bertan esku hartzen duten eragileek desgaitasuna duten pertsonen aukera-askean eta partaidetza komunitarioan oinarritzen den laguntza-eredu honen inguruan dituzten ikuspegiak ezagutu ahal izan dira. Hona hemen ateratako ondorio nagusiak:

1.

Oro har, Programa ezezaguna dela ondorioztatzen da, maila instituzionalean eta baita desgaitasuna duten pertsonen artean ere. Horrela, bizi-proiektu eredu independentearen garapena zaildu egiten da.

2.

Programan parte hartzen duten pertsonak pentsatzen dute aukera askerako eskubidea eta bere bizitzaren esparru guztien gaineko kontrola bermatzea ahalbideratzen duela, baita komunitatean parte hartzea ere.

3.

Galdetegia erantzun duten pertsonak, batez ere Bizimodu Independenteterako Programan parte hartzen dutenek, prebentzio-lana egitea behar-beharrezkoa dela aldarrikatzen dute, batez ere desgaitasuna duten eta bizi-proiektu eredu independentea garatzeko gaitasuna dutenek. Informazioa eta baliabideak partekatzea eskatzen dute ahalduntzea sustatzeko.

4.

Desgaitasuna duten pertsonak bizi-proiektu eredu independentea garatzeko baliabide eta laguntza falta dagoela nabarmentzen da, nahiz eta Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioan horrela jasota egon.

5.

Horrekin batera, adierazten da oztopo nagusia baliabide ekonomiko falta dela; izan ere, gehienetan diru-sarreraren maila ez da nahikoa izaten bizi-proiektu eredu independenteak dakartzan gastuei aurre egiteko.

6.

Etxebizitza ere ezinbesteko elementua da bizi-proiektu eredu independentea bidegarria izan dadin, eta desgaitasuna duten pertsonak etxebizitzaren arloko egungo testuingurutik kanpo daude. Egoera hori larriagotu egiten da, epe mugarik gabe familia-laguntzen mende irautea dakarrelako, edo, hala badagokio, alternatiba bakar gisa instituzionalizazioa eskaintzen delako.

7.

Familiek, bere aldetik, seme-alabek bizi-proiektu eredu independenterako urratsa ematea nahi dutela adierazten dute, baina, bestalde, egoeraren aurrean zalantzak eta beldurrak adierazten dituzte, eta urratsa emateko zailtasunak jartzen dituzte.

8.

Instituzionalizazio egoeran dauden pertsonen, bere laguntza-beharrak asetzeko eredu hori hautatu aurretik, Bizimodu Independenteterako Programa ez izanaz damutzen dira; hala eta guztiz, egun bideragarria ote zaien zalantzan jartzen dute.

9.

Laguntza pertsonalaren kudeaketan esperientzia daukaten pertsonen, nahiz eta onartzen duten bizi-proiektuan ondorio positiboak izango lituzkeela, zailtasunak daudela onartzen dute, batez ere, profesionalak kontratatzeke, kontratazioak bideratzeko, lan-kudeaketarako, eta abar.

10.

Desgaitasuna duten pertsonen bizi-proiektu eredu independentea garatzeko garaian, Bizimodu Independenteterako Bulegoa lagungarria izango dela uste dute, batez ere, aholkularitza, laguntza eta akonpainamendua eskaintzeko.

